

4

“Mintzajardunaren azken urteotako bilakaera. Aurrera begirako erronkak” Mikel Zalbideren Txostenari iruzkina

Lionel Joly

Soziolinguistita, Euskaltzaindia

ljolyeuskaltzaindia@gmail.com

Sarrera-data: 2016-10-09 | Onartze-data: 2016-10-21

Laburpena. “Mintzajardunaren azken urteotako bilakaera. Aurrera begirako erronkak” artikulua irakurketa kritikoa egiten du Lionel Jolyk. M. Zalbideren artikulua esturktura eta oinarri teoriko-metodologikoak aztertuz, azken 20 urteetan euskararen erabilerak izan duen bilakaerari buruzko irakurketa egiten du autoreak. Artikuluaren bukaeran etorkizuneko erronkak eta EHko egoera soziolinguistikoa aztertzean kontuan hartu behar diren ezaugarriak aipatzen ditu Lionel Jolyk. • *Hitz gakoak:* Soziolinguistika, euskararen erabilera, Mikel Zalbide, Arnasguneak, erabileraren aldagaiak.

Abstract. Lionel Joly provides a critical interpretation of the paper “Evolution in speaking activity over the last few years. Looming challenges”. The author makes an interpretation of the evolution that has taken place in Basque use over the last 20 years by analysing the structure and theoretical and methodological bases of M. Zalbide’s article. At the end of his paper Lionel Joly refers to the future challenges and the features that need to be taken into consideration when analysing the sociolinguistic situation of the Basque Country. • *Key words:* Sociolinguistics, Basque use, Mikel Zalbide, Lungs, variables in use.

1. SARRERA

M. Zalbideren dokumentuekin gertatu ohi zaidana gertatu zait kasu honetan ere: oso zail egiten da dokumentuan adierazten denari buruz eragozpenik egitea. Gehienetan, artikulua edo liburua irakurri ahala bururatzen zaizkidan oharrak, eragozpenak, zehazteko puntuak, desadostasunak etab. dokumentuaren aurreragoko zati batean aipatzen ditu M. Zalbidek. Fleko gutxi gelditzen da airean, exhaustiboa izaten da autorea. Horregatik izango du lan laburrak egiteko zailtasuna M. Zalbidek: gai edo arazo bati heltzen dionean ikuspuntu diferenteak eta ñabardura ahalik eta gehien aipatzen eta tratatzen saiatzen da. Hori bai, ikuspuntu zehatza eta propioa izaten du M. Zalbidek. Ikuspuntu hori, normalean, soziolinguistikan duen eskarmentuan eta ezagutzan oinarritua da. Erabilerari buruz egiten duen azterketa honetan ere hala gertatzen da. Erabileraren azterketa egiteari heltzen dio, maila sinkronikoan eta diakronikoan. Aditu baten ikuspuntua ematen du gaiari buruz eta gutxi gehitu ahal zaio emandako ikuspuntuari, emanda dagoen ikuspuntutik behintzat. Lan hori egiteaz gain, nazioarteko bibliografia soziolinguistikoari buruz duen ezagutza erabiliz, arnaguneen garrantzia azpimarratzen du. Gune horiek bereziki lantzen ditu bere txostenean, egoera soziolinguistiko orokorraren adierazle kualitatiboa direlako. Labur-bilduz, egoeraren deskribapen orokorra egin ondoren, teoria soziolinguistikoaren parametroen arabera osatu duen iritzia ematen du M. Zalbidek.

2. LANAREN ESTRUKTURA

Lanaren estruktura argia da. Sarrera egin ondoren, txostenean erabiliko dituen eta erabilerari lotutako kontzeptuen azalpena egiten du. Beste zientzia-alor batzuetan beharrezkoa izaten ez bada ere, soziolinguistikaren alorrean ezinbestekoa da zenbaitetan aurreneko atal hori, nahasmena sortzen baita bestela. Diglosiaren kasua adibide argia da: autore batzuek zentzu batekin erabiltzen dute eta beste batzuek erabat diferentea den adiera batekin (ikus *BAT* aldizkariaren 2011ko 79-80 zenbaki monografikoa). Kasu honetan erabilerari lotutako hainbat kontzeptu argitzen ditu M. Zalbidek, hainbat aurreiritzi eta ohitura apurtuz, ikuspuntu zientifikoaren alde eginez. Txostenean zehar erabiliko dituen kontzeptuak, tipologiai eta metodologiak ere berariaz azaltzen ditu aurreneko atal honetan.

Euskal Herriko egoera soziolinguistikoaren analisi sinkronikoa egiten du bigarren atal nagusian, gaur egungo hizkuntza-erabilera aztertuz.

**Lanaren
estruktura
trinkoa eta
serioa da:
erabilera aztertu
ez ezik
kontzeptuali-
zazioa lantzen du
hasiera batean
eta
proposamenak
egiten ditu
lanaren
bukaeran. Lan
osoan zehar
soziolinguistikaz
duen
eskarmentuan
oinarritutako
bere kezka
nagusiak
azpimarratzen
ditu autoreak,
arnaguneei
buruzko datu
xeheak eskainiz.**

Mintzajardunaren aldakortasun-iturriak zehazten ditu M. Zalbidek. Zehazten duenez, sei dira mintzajardunaren aldakortasun-iturri nagusiak: non geografikoa, non soziofuntzionala/jardungunea, rol-harremana, adierazpidea eta zabaleroa, estiloa, adina.

Lan hori egiteko, 2011ko inkesta soziolinguistikoaren emaitzak aurkezten ditu autoreak. Hasiera batean datu orokorrak, eta ondoren jardunguneen araberakoak, aurkezten ditu, azken kasu honetan kale-neurketen emaitzak ere erabiliz. Atalburu honen azken zatian eskolan gertatzen den erabilerari heltzen dio.

Hirugarren atal nagusian, datu-iturri berdinak erabiliz azterketa diakronikoa egiten du autoreak, euskararen erabileraren azken 20 urteetako bilakaera aurkeztuz. Datu orokorrak eman ondoren adinaren araberako datuak azaltzen ditu eta, bukatzeko, jardungunekako emaitzak jasotzen ditu. Analisi diakroniko honen azken zatian arnasmuneetan zentratutako atal xehea eskaintzen du. Arnasmuneen gaia artikulua osoan zehar ageri da landurik, saioaren zehar-lerroa delarik.

Laugarren atal nagusian bilakaeraren zergatien heldien txostengileak. Bilakaera zergatik den negatiboa zenbait kasutan, eta zergatik positiboa beste zenbaitetan, azaltzen du bertan. Bosgarren atalburuan hizkuntzen osasun soziolinguistikoa neurtzeko nazioartean sortu diren modelo diferenteak aurkezten ditu M. Zalbidek eta euskararentzat egokitu duen modelo berezitua aurkezten du. Modelo horretan arnasmuneen papera zentrala da. Artikuluaren seigarren atalean txostenean zehar azalaratutako kezkei eta arazoei erantzuneko dien hobekuntza-proposamenak eta erronka nagusiak aurkezten ditu. Bukatzeko, azken atalean, ahuldutako hizkuntza(k) indarberritzeko gogoeta-etxea sortzearen alde ageri da eta zergatiak ematen ditu.

Bistan denez, lanaren estruktura trinkoa eta serioa da: erabilera aztertu ez ezik kontzeptualizazioa lantzen du hasiera batean eta proposamenak egiten ditu lanaren bukaeran. Lan osoan zehar soziolinguistikaz duen eskarmentuan oinarritutako bere kezka nagusiak azpimarratzen ditu autoreak, arnasmuneei buruzko datu xeheak eskainiz. Azalpenaren estruktura horrek bere alde onak eta bere mugak ditu: alde batetik adituaren ikuspuntu profesionala eta jakina azpimarratzen du, bere iritzia zein den argi azaltzen duelarik. Eskuarlean dugun lana ez da interes mugatuko eta sakontasun zientifikorik gabeko aurkezpena: ez dira datu hutsak edo hotzak aurkezten, baloraziorik gabekoak. Txanponaren beste aldea ezaguna da: gai horretan aditua izanik ikuspuntu jakina defenditzen du M. Zalbidek, eta zorrotza den ikuspuntu horrek kokatzea eskatzen du, ados egotea edo ez egotea. Horrezaz gainera, alor-gai batean zentratzeak, alor-gai horrek duen garrantziagatik, beste alor, datu eta datu-iturri batzuk axalagotik aipatzea edo ez aipatzea eskatzen du¹.

3. LANAREN EDUKIARI BURUZKO EKARPENAK ETA IRUZKINAK.

I

Hasieran aipatu dudanez, M. Zalbideren txostenei ekarpenak egitea zaila egiten da. Normalean exhaustiboa da: toki batean tratatzen ez duen gaia txostenaren hurrengo zati batean aipatzen du askotan, eta bere ikuspuntua oinarri teoriko sendoetan finkatu ohi du. Hori kontuan izanik, lanaren edukiari buruzko ekarpenak eta iruzkinak egiten saiatuko gara hemen.

3.1 “Kontzeptu-argitzea”

Atal honetan puntu xume batzuk baino ez ditugu aipatuko. Testuinguruaren araberako puntuak baino ez dira askotan, eta ez dute garrantzi handiegirik. Adibidez 1.5 atalean, maiztasun-mailaketa aurkeztean, euskaraz bakarrik egiten duten pertsonak desagertu egin direla dio autoreak. Arrazoa du, baina, agian, orain ere ume txiki batzuk euskara baino ez dute erabiltzen. Salbuespena txikia da hori, ez da segurua gainera eta, nolana ere, inkesta soziolinguistikoetan ez da halakorik agertzen, galdetegiak 16 urte baino gehiagokoei pasatzen baitzaizkie. Baina tira, aipatzeko modukoa da. Maiztasun-mailaketari dagokionez, egoera soziolinguistikoa bultzatuta euskarazko mailen eta erdarazko mailen artean desoreka bat dago: E0 “beti erdaraz da” baina E4 “euskaraz erdaraz baino gehiago” da. Desoreka hori ikusita zenbaitek ikerketan desoreka bat dagoela esango du agian. Gure gizartearen egoera soziolinguistikoan dago ordea desoreka, inon egotekotan: ez ikerketa egiteko moduan. Alderantziz, desegokia izango litzateke mailakatze-graduazioa egoera edo nahi etiko baten arabera zehaztea.

Atal honetan (1.6) mintzajardunaren aldakortasun-iturriak zehazten ditu M. Zalbidek. Zehazten duenez, sei dira mintzajardunaren aldakortasun-iturri nagusiak: non geografikoa, non soziofuntzionala/jardungunea, rol-harremana, adierazpidea eta zabaleroa, estiloa, adina. Aparte uzten ditu, bigarren maila batean (ikus bere 31. oin-oharra) 1) ama-hikuntza, 2) hizkuntza-gaitasuna eta 3) generoa, ikasketa-maila eta jarduera sozio-profesionala. Bat gatoz autorearekin mintzajardunaren sei aldakortasun-iturri horiekin. Are gehiago, parametro horiek edozein hizkuntza-gertaera deskribatzeko oinarritzko elementuak direla iruditzen zaigu (ikus Zalbide, Joly, Gardner 2015: 181-222). Fishman-ek zehaztutako galdera famatuari erantzuteko balio osoa dute: “who speaks what language to whom and when?” (Fishman 1965). Hizketaldi edo hizkun-

Hizketaldi edo hizkuntza-gertaera jakinaren deskribapena egiteko balio duten faktore guzti horiek, aldiz, ez dira beti guztiak aldakortasun-iturri: egoera soziolinguistikoaren arabera eragin txikiagoa edo handiago izango du aldagai bakoitzak. Bigarren maila batean M. Zalbidek kokatu dituen aurreneko bi aldagaiok badirudi garrantzi handikoak direla euskararen kasuan.

Zalbideren deskribapen- edo aldagai-markoa oso exhaustiboa da. Agian jarreraren kontua da gutxien lantzen duena bere sei aldagaietan (edo 11etan, bigarren mailako ezaugarriak kontuan hartzen badira). Jarrerak erabileran duten eragina beste atal batzuetan aipatzen du bere txostenean, bereziki “social reward systems” direlakoez diharduenean.

tza-gertaera jakinaren deskribapena egiteko balio duten faktore guzti horiek, aldiz, ez dira beti guztiak aldakortasun-iturri: egoera soziolinguistikoaren arabera eragin txikiagoa edo handiagoa izango du aldagai bakoitzak. Segun nola begiratzen zaien³, bigarren maila batean M. Zalbidetik kokatu dituen aurreneko bi aldagaiok badirudi garrantzi handikoak direla euskararen kasuan. Erabileran eragiten duten faktoreak aztertzean V. inkesta soziolinguistikoan (Askoren artean 2013: 51-52) badirudi gaitasun erlatiboak eragin zuzena duela erabileran: zenbat eta errazago euskaraz egiteko gai izan, orduan eta maizago egiten da euskaraz⁴. Hitz egiteko erraztasun honen kontuarekin lotura zuzena du amahizkuntzak edo lehen-hizkuntzak: euskara lehen hizkuntza dutenek errazago hitz egiten dute euskaraz. Beste ikerketa batzuek argi berresten dute hori: ikus adibidez ARRUE proiektuaren emaitzak (Askoren artean -2013: 33-34), V. mapa soziolinguistikoarenak (Eusko Jaurlaritza 2014: 98) eta Prospekzio Soziologikoen Kabinetearenak (2011: 6-8).

Lerro horietan egokia iruditzen zaigun euskararen erabileraren deskribapen-azalpen marko bat zehaztu dugu, Mikel Zalbideren ikuspuntua erabat berretsiz, osoa eta exhaustiboa iruditzen zaigulako. Beste marko edo ikuspuntu baliagarri batzuk badira, 1968an Hymes-ek deskribatu zuena adibidez (Hymes 1968: 110), orobat Giles et. al ena (1977) edota, gugandik gertuago, Txepetx-ena (1987) edo azken hori baino egokiagoa den I. Martinez de Lunarena. Hiru dimentsio nagusi zehaztu ditu (Martinez de Luna 2012: 126):

- 1) norbanako dimentsioa (gaitasun erlatibo nahikoa, motibazio nahikoa);
- 2) dimentsio mikrosoziala -gizarte-egoerak eta gizarte-sareak- (solaslaskideen ageriko gaitasuna, harreman trinkoa, hautua egiteko ahalmena, hizkuntza-planak);
- 3) dimentsio makrosoziala (gizartearen babesa, lege-estatus egokia, hizkuntza-politika).

Banaketok diferenteak izan arren, modelo horiek ez dira kontrajarriak. Zalbidetik aipatzen dituen ezaugarri deskribatzaileak beste modeloetan ere (batzuetan sakabanaturik) agertzen diren aldagaiak ditugu. Zalbideren deskribapen- edo aldagai-markoa oso exhaustiboa da. Agian jarreraren kontua da gutxien lantzen duena bere sei aldagaietan (edo 11etan, bigarren mailako ezaugarriak kontuan hartzen badira). Jarrerak erabileran duten eragina beste atal batzuetan aipatzen du bere txostenean, bereziki “social reward systems” direlakoez diharduenean: ageriko sis-

tema bat (edo Bourdieu-k hobetsiko lukeenez *ekonomia* bat -1977 eta 1982-) dago hor, batetik; baita ezkutuko sistema bat ere, bigarren hori jarrereri eta inkontzienteari loturik.

Kontzeptuen argitze-saioan, hizkuntzaren beraren dimentsioa azaltzea egokia litzateke agian. Aski garrantzitsua bilakatzen ari da hori ere, eta agian berariazko atala eskaintzea merezi luke. Hizkuntzen arteko nahasketa suertatzen denez, bereziki gazte-hizkeran, “euskaraz egitea” zer den galde diezaiokegu zenbaitetan geure buruari. Noiz hasten da euskararen jarduera eta noiz erdararena? Hizkera berri bat ote da gazteen eredu nahasi hori? Euskalki berri bat? Non kontabilizatu behar da? Euskaldun hutsarentzat ulergarria ez den hizkera-moldea ez dela euskara esatera bultzatuko luke logikak (euskara tekniko aparta doalarik noski) eta, alderantziz, erdaldun hutsarentzat ulergarria ez dena ez dela erdara. Tontakeria badirudi ere, ondorio sendoa izan dezake horrek erabilerari buruz jasotako emaitzetan: nahasmen kontzeptual horregatik, inkestatuak galdekizunari emandako erantzuna bere jarrerren eta uste/aurreiritzien menpeago geldituko da. Bere erabileraz daturik eman baino lehen, galdera bati baino gehiagori erantzun behar dio hiztunak, kontzienteki edo inkontzienteki: 1) nahasmintzoaz ari denean kontziente al da hiztuna, nahasian ari dela? Erabiltzen duen hizkera/euskalki/euskañol edo dena delako hori zer da bere ustean: euskara? gaztelania? beste zerbait? Benetan garbi al du, zer egiten duen? Hortik dator eragin posiblea, inkesten emaitzetan: hiztunak ez badu argi zer hizkuntzatan ari den, zer erabiltzen ari den galdetzen zaionean ezin du modu errealistan adierazi euskaraz ala erdaraz egiten duen egoera batean edo bestean, edota nagusiki euskaraz edo erdaraz egiten duen. Horregatik, erabilerari buruz izango duen erantzuna jarrera/aurreiritzi batzuekin lotuko du⁵. Bistan denez, egoera horrek eragina izango du galdeketen bitartez jasotako datuetan. Hor bakarrik ez: kale-neurketen emaitzetan ere eragina izango du. Elkarrizketa bateko hitz solte batzuk entzun ondoren, entzun duena euskaraz ala erdaraz esanik dagoen erabaki beharko du datu-jasotzaileak. Kode-nahasketa eta alternantzia zenbat eta maizago ageri, orduan eta arazo larriagoa izango dute neurtzaileek solaskideak euskaraz ala erdaraz ari diren zehazteko. Horren ondorioz, beraien jarrera/iritzi/aurreiritziek gero pisu handiagoa izango dute erabilerari buruz jasotzen dituzten emaitzetan. Euskararen barne-ezaugarrien (zenbaitak “kalitatearen” esango luke) bilakaerak inkesten eta ikerketen emaitzen fidagarritasunean eragina izan dezake beraz.

Ikerketen emaitzen fidagarritasunaz ari izan garenez aurreko paragrafoan, ezaugarri jakina aipatuko dugu hemen. Gizakiaren funtziona-

**Kontzeptuen
argitze-saioan,
hizkuntzaren
beraren
dimentsioa
azaltzea egokia
litzateke agian.
Aski
garrantzitsua
bilakatzen ari da
hori ere, eta
agian berariazko
atala eskaintzea
merezi luke.
Hizkuntzen
arteko nahasketa
suertatzen denez,
bereziki gazte-
hizkeran,
“euskaraz egitea”
zer den galde
diezaiokegu
zenbaitetan geure
buruari.**

Gizakiaren funtzionamendu kognitiboa ikusita, badirudi galdeketei erantzuterakoan jendeak ez duela askotan benetan zer pentsatzen duen esaten, baizik eta partez gustatuko litzaiokeena erantzuten duela. Jasotzen den erantzuna ez da errealitatearen ispilu huts, behintzat.

mendu kognitiboa ikusita, badirudi galdeketei erantzuterakoan jendeak ez duela askotan benetan zer pentsatzen duen esaten, baizik eta partez gustatuko litzaiokeena erantzuten duela. Jasotzen den erantzuna ez da errealitatearen ispilu huts, behintzat. Errealak Real Madrilen kontra jokatzen duenean galdetzen bazaio Errealaren zaleari zeinek irabaziko duen, alde zuretik nekez joko du bere taldea galtzaille, nahiz eta azken urteotako partida gehienak galdu egin dituen. Jarrerak, beraz, eragina izan dezakete jasotako emaitzetan: euskaraz egitea ondo ikusten badute, hala egitea oso positibotzat jotzen badute inkestatuek, zenbait kasutan (gehienetan ohar-kabea) benetan egiten dutena baino euskaraz gehiago egiten dutela adierazteko joera izango dute. Hori egingo ez balu inkestatuak, psikologia sozialaren alorrean L. Festinger-ek deskribatu dituen disonantzia kognitiboan menpe geldituko litzateke. Gai honi buruzko adibide argiak eman izan dituzte Calvet-ek eta Lafont-ek (Lafont 1997: 72-73; Calvet 1987: 104). Bi autore horiek hainbat adibide eman dute frogatzeko, batzuetan pertsonak esaten dutela hizkuntza bat ez dakitela benetan badakitenean eta erabili ere erabiltzen dutenean. Jokabide horren arrazoiak asko izan daitezke; pertsona horiek beren hizkuntzari buruz dituzten jarrerengatik eta auto-gorrotoagatik gertatu ohi dira maiz horrelakoak. Modu horretan, “zer egiten duzu x egoeran?” galdetzen bazait erantzungo dudana ez da benetan “zer egiten dudana” baizik eta “zer uste dudana egiten dudala” edo/eta “zer gustatuko litzaidakeen egitea”, edo, are gehiago, ikertzailearen presentziagatik (Labov-ek aztertu zuen behatzailearen paradigmaren eraginez) “gizarteak zer eskatuko lidakeen egitea?” edo zehazkiago (telefonoz ez bada egiten inkesta baizik zuzenean) “behatzaile honek, dituen ezaugarriekin, zer nolako erantzuna gogoko izango du?”, azken kasu honetan partez enpatiak bultzaturik. Irakurleak barka beza ebidentzia horiek hemen aipatzea: gizarte kontuez egiten den edozein ikerketak ditu honelako ezaugarri-mugak (ikerketak kuantitatiboek bereziki) eta errealitatea aztertzeak duen berezko zailtasun hori erantsi egiten zaio ikerketa orokorrari⁶. Kontuak hala izanik ere, badaezpada gogoratu egin ditugu hemen. Faktore horiek esplikatzen lagun dezakete M. Zalbiderek bere txostenean inoiz edo behin “arraro” ikusi izan dituen datuak eta emaitzak.

3.2 Euskararen erabilera sinkronikoa, diakronikoa eta etorkizunari begirako proposamenak

Sarrerako atalaren ondoren erabilerari buruzko datuen irakurketa egiten du Mikel Zalbiderek, maila sinkronikoan, diakronikoan eta etorkizunari begirako erronkak zehaztuz. Datu orokorrak aztertu ondoren, bere ikuspuntutik garrantzitsuak diren ezaugarriak lantzen ditu. Lanketa modu

horretan egin izanak bere logika du: datu osoak eta orokorrak aztertzeo interesa duenak nahikoa du jatorrizko iturrietara jotzearekin (bereziki V. inkesta soziolinguistikoaren datuetara). M. Zalbidek irakurketa jakina egin nahi izan du, aditu baten irakurketa. Ahuldutako hizkuntzei eta HINBE-ri buruzko nazioarteko bibliografiaz duen ezagutza baliatuz arnaguneen garrantzia azpimarratzen du bere lanetan. Txostenean agertzen den datu, adierazpen eta baieztapen gehienez luze jardun ahal izango genuke eta interesgarria izango litzateke agian, baina iruzkin-artikulu honen mugetatik kanpora lihoake hori. Mota honetako dozenaka iruzkin egin zitekeen, adibidez:

— 17. Orrialdean, etxeko erabilera aztertzean, lurralde diferenteen emaitzak aurkezten dira. Lurralde bakoitzean egoera soziolinguistikoaren adierazle dira rol-harremanen banaketaren emaitzak. Luze azter litekeen gaia da hori.

— 75. oin-oharrean, datuak bederatzi eremu geografiko diferenteen arabera zehaztea orokorki aurkeztea baino egokiagoa litzatekeela dio M. Zalbidek. Arrazoi du, muturreko egoeren datuak nahastuta daudenean errealitatearekin zer ikusirik ez duen batz besteko ikuspuntua jasotzen da bestela.

— Kale-neurketen kasuan (19. or.) adin-taldekako datuak aztertuz lurralde diferenteetako estruktura soziolinguistikoa zehaztea egongo litzateke. Lan hori datu zaharragoak baliatuz aspaldi egin izan dugu (ikus Joly 2004).

— 24. orrialdetik aurrera analisi diakronikoa egiten denean, datuak izan baditugunez, oso interesgarria litzateke “real time”-eko emaitzak “apparent time”-eko emaitzekin konparatzea. Adinaren arabera banaketa soziofuntzional iraunkorrik badagoen ala ez zehazteko balioko luke horrek, adibidez. 27. orrialdean agertzen den laukia aztertzea oso interesgarria da, bide batez. Adin-taldeen 20 urteetako bilakaera erreala aztertzen bada⁷, zera ikusten dugu: EAEko datuetan badirudi erabilera zertxobait igo egin dela, Nafarroan mantendu eta Iparraldean igo egin dela. EAEko igoera horrek helduen alfabetatzearekin zer-ikusirik izan dezake, baina Iparraldeko datuak ikusita bi aukera daude: a) datuak ez dira koherenteak edo fidagarriak, lehen aipatu ditugun arrazoiengatik.; b) adinaren arabera konpartimentazio soziofuntzional iraunkorra gertatzen ari da han⁸.

Bistan denez, lau adibide horiek asko luzatu beharko lirateke benetan ulergarriak izateko eta atzean duten interesa eta sakontasuna adierazi ahal izateko. Horiek bezala dozenaka puntu aipatu ahal izango litzateke,

**Kualitatiboki
aski datu
kezkarriak
ematen ditu
inkestak,
erabilerari
dagokionez. Alde
batetik, eremu
guztietan igo
bada ere
euskararen
erabilera,
bereziki eremu
formaletan igo
da eta ez
hainbeste etxeko
eta lagunarteko
eremu
hurbilenetan.**

Euskararen diagnostikoa egitean ez da baikorregia izan behar; ezkorregia ere ez. Joera dago oso ezkorra izateko. Joera horri aurre egiteko, 80. hamarkadan euskaldunon pareko egoera demolinguistikoan zeuden (edota gu baino indartsuago ziren) Europako hiztun-elkarte batzuk gaur egun nola dauden aztertzea lagungarri ona izaten da.

M. Zalbideren baieztapenekin zergatik gauden ados edo ez azaltzeko etab. Erabileraren datuei buruzko AMIA bezalako zerbait egitea ere oso interesgarria izan liteke, baina iruzkin-artikulu honen mugetatik kanpora geldituko litzateke hori. Hori bai, interesgarria iruditzen zaigu Mikel Zalbidek defenditzen duen tesi orokorra pixka bat aztertzea, sakon ez bada ere.

Ezer baino lehen, M. Zalbidek egiten dituen baieztapen gehienekin bat gatzela aipatu behar dugu, soziolinguistikan dugun ezagutza teoriko-praktikoak hala bultzatzen gaituelako. Normala denez, zenbait puntutan zalantzak sortzen zaizkigu eta hemen berariaz aipatuko ditugu. Hone-lako kritika-saioak desorekatuak izaten dira ezinbestean: oreka lortzeko gure adostasuna duten puntu guztiak aipatu beharko genituzke, alde batetik, eta zalantzak diren puntu guztiak, bestetik. Hartarako as-tirik eta tokirik ez dugunez, ohar batzuk baino ez ditugu hemen egingo.

Arnasguneei garrantzi nabarmena ematen die Mikel Zalbidek. Bere iritzi orokorrarekin bat gatoz, inoiz V. inkesta soziolinguistikoari buruz esan izan dugunez:

“Euskararen erabileren bilakaera ere orokorrean baikorra da, azken 20 urteotan batez beste 4 puntu igo da euskararen erabilera. 2011n inkestatuen %20k euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du eta %8,9k euskara erabiltzen du baina erdara baino gutxiago. Kale-neurketen datuak ikusi beharko dira argitaratzen direnean, ea datu horiek baieztatzen diren.

Kualitatiboki aski datu kezkarriak ematen ditu inkestak, erabilerari dagokionez. Alde batetik, eremu guztietan igo bada ere euskararen erabilera, bereziki eremu formaletan igo da eta ez hainbeste etxeko eta lagunarteko eremu hurbi-lenetan. Azken horiek dira euskararen etorkizunerako eremu garrantzitsuenak, gaitasun komunikatiboa ziurtatzen dutenak. Orain dela hogeitau urte hizkuntzen arteko banaketa soziodinamiko diglosiko moduko bat bazen (ordurako aski ahuldurik zen hori), gaur egun erabat galdu da banaketa hori. Beste alde batetik, eta datu hau benetan kezkarria da, euskal arnasguneetan, laugarren gune soziolinguistikoan (bertako biztanleen %80 baino gehiago elebidun diren eta, ondo beharrez, eguneroko hizkuntza arrunt euskara izan behar lukeen gunean, ikus adibidez Gros i Lladós 2009: 107): euskararen erabilerak 7,5 puntu egin du hor behera. M. Zalbidek askotan azpimarratu izan du arnasgune horien garrantzia euskararen etorkizunerako. Kopuru absolutuak eta datu kuantitatiboak politak dira baina kalitateak eta datu kualitatiboek dute garrantzirik handiena eta horiek dira, gure aburuz, plangintzaren norabidea finkatu behar dutenak.” (Joly 2012).

Arnasguneei buruz M. Zalbidetik duen kezkarerik bat gatzoz beraz, zeharo. Baina gaur egun agian ez ginateke ezkor izango. Are gutxiago Mikel Zalbidereen txostena irakurri ondoren. Zergatia azaltzen saiatuko gara hemen.

A. Euskararen egoera globala ikusita, Europako zein nazioarteko hizkuntzen egoeren bilakaera kontuan hartuta eta bereziki azken hogeitau urteotan gizarteak bizi duen iraultza soziala kontuan hartuta, arnasguneei buruz klasikoa den ikuspuntua zertxobait leundu egin beharko litzateke. M. Zalbidetik aipatzen dituen arnasguneen 11 ezaugarri (38. or.) birpentsatu egin beharko dira, seguruenik, gizarte berrian. Gaur egun ezin da enklabe batean bizi, mugikortasuna eta azkartasuna eskatzen du gizartearen eredu berriak. Mugitzeko beharra eta nahia handituz doaz. Askatasuna eta biztanleriaren nahia bereziki zaindu behar dira. Arnasguneen parametro klasikoak gizarte berrian hain erasotuak daudelarik, gune horietan (zenbait kasutan atzerakada apalaz bada ere) mantentzea lortu denari eustea lorpen handia da seguruenik. Irakurketa baikorragoa edo ezkorragoa egin behar den, aldiz, ikerketa soziolinguistikoko sakonak eginez baino ezingo da zehaztu, datu kuantitatiboekin sakontasun kualitatiboa erantsiko dieten ikerketak bideratuz alegia.

B. Euskararen diagnostikoa egitean ez da baikorregia izan behar; ezkorregia ere ez. Joera dago oso ezkorra izateko. Joera horri aurre egiteko, 80. hamarkadan euskaldunon pareko egoera demolinguistikoa zeuden (edota gu baino indartsuago ziren) Europako hiztun-elkarte batzuk gaur egun nola dauden aztertzea lagungarri ona izaten da. Merezki du, alegia, hiztun-herri horiekin (Gales, Okzitania, Britainia, Irlanda...) konparazio zehatzak egitea. Panorama konparatibo hori, argi eta garbi, euskararen aldekoa da. Gure kasuan zentratuz, Iparraldeko eta EAEko bilakaeren arteko aldea ikusi besterik ez dago. Duela 30/40 urte, inkesten emaitzen arabera, EAERena baino trinkoagoa zen Iparraldeko egoera. Gaur egungo datuak kontutan hartuta, alderantziz dira gauzak.

C. Bere burua modu baikorrean ikusten duen gaixoa azkarrago sendatzen da. Ezkortasuna kaltegarri izan liteke: okzitanoaren kasuan, adibidez, soziolinguisten ezkortasuna nabarmena izan da. Soziolinguista horientzat soziolinguistaren egitekoa ezin da hizkuntza-komunitatean neutroa izan. Adituen jarrerak aktiboa izan behar du. Alienazioaren fenomeno eta minorizazio/diskriminazioa kontziente bihurtu nahi izan zuten soziolinguista horiek okzitanoaren hizkuntza-komunitatean. Askotan, hori dela medio, oso mezu ezkorrak zabaldu zituzten. Zergatik?

Ezkor ez izatea gauza bat da, noski, eta errealitatea ukatzea bestea: gaixotasuna sendatzeko baikor izatea lagungarri da; gaixo gaudela ukatzea, aldiz, oso da kaltegarri. Laburbilduz, arnasguneek egoera soziolinguistikoa globalean duten garrantziagatik ezin zaie tokirik kendu: ondo aztertu behar dira eta zaindu. Etab.

**M. Zalbidek
berak argi
aipatzen duenez
bere txostenean,
arnasguneak
birpentsatu egin
beharko dira.**

partez egoera ezkorra zelako benetan, eta partez mezu ezkor horien birtartez jendea inplikatzeko lortu nahi zelako: soziolinguistikak, zientziazko ezagutzak alegia, erabili ezean zure hizkuntza galdu egingo dela esaten badizu eta zure hizkuntzak irautea nahi baduzu, hizkuntza erabiliko duzula pentsatzea logikoa da. Alderantziz gertatu zen ordea: hizkuntzaren desagerpena erremediorik gabeko gertaeratzat jo zuen gizarteak, eta mezu ezkor horiek indartu egin zuten ikuspuntu hori. Hizkuntzaren gainbehera azkartu egin zen, partez, mezu horien ezkortasunagatik. Ezkor ez izatea gauza bat da, noski, eta errealitatea ukatzea bestea: gaitxotasuna sendatzeko baikor izatea lagungarri da; gaixo gaudela ukatzea, aldiz, oso da kaltegarri.

Laburbilduz, arnasguneek egoera soziolinguistikoko globalean duten garrantziagatik ezin zaie tokirik kendu: ondo aztertu behar dira eta zaindu. Hori esanda, orain arte historikoki iraun duten moduan, M. Zalbidek aipatzen dituen ezaugarriekin (38. or.), gure ustez ezingo dute iraun etorkizunean. Inoiz jasandako inpaktu soziokultural, ekonotekniko, politiko-operatibo eta demografiko handiena jasaten ari da gizartea. Aldaketa horiek gizartearen estrukturan, herritaren nahi-usteetan, herritaren helburuen eta poztasunari buruz duten ikuspuntuan, maila emozional eta kognitiboan inoiz bezalako aldaketa bultzatzen dute. Gizarteak daraman abiadurak garapen kognitiboan zer ondorio izango duen neurtzeko ez gara oraingoz kapaz. Abiadura horrek sortzen duen frustrazioa, disonantzia kognitiboan biderkatzea etab zehazteko ere ez. M. Zalbidek berak argi aipatzen duenez bere txostenean, arnasguneak birpentsatu egin beharko dira: ezaugarri berriak egokitu beharko zaizkie, autoreak aipatzen duen moduan: “gizarte-bizitzan euskaraz egiteko aukera, komenentzia eta beharra benetan non dagoen (edo non legokeen) ikusiz, eta gure esku egon litezkeenak hautatuz, aukera-komenentzia-behar horien oinarrian dauden prozesu demografikoak, soziokulturalak, ekonoteknikoak, lurralde-antolamenduzkoak eta administratiboak euskarazko jardunaren indargarri izan daitezten birmoldatzen saiatzea [lehenetasuna da].” (59. or.).

Arnasguneak kualitatiboki ezinbestekoak dira beraz, baina etorkizunari begira birpentsatu egin beharko dira. Orain arte mantendu diren moduan mantendu izana lorpen handia da, baina ez dira gehiago ahuldu behar eta itsaso erdaldunean sakabanaturik dauden euskaldunei euskara erabiltzeko aukera argia eman behar zaie, gotorleku txikiak eskainiz. Itsaso erdaldunean euskararen babesleku trinko xamarrek sortzea ezinbestekoa dirudi. Alde horretatik, interneteko sarea aukera bat izan dai-

teke, Bilboko *Kafe Antzokia*, *Mintzalagun* programa eta horiek bezalako beste zenbait egitasmo ere bai. Jarrera eta erabilera pro-aktiboa bultzatuko duten ekintzak edo guneak beharrezko ditugu. Gune-eremu-egitasmo horiek adin-talde guztientzat existitu beharko lirateke (hamasei urteko gazteen interesak ez dira askotan hirurogei urteko helduenak) eta toki guztiak kontuan hartu beharko lirateke. Internet bera aukera bat izan liteke, gainera, gune euskaldunenek sarrera izan dezaten gune erdaldunenetan. Euskaraz hitz egiteko aukerak sortu behar zaizkio euskaldunari. Arnasguneetan ekonomia linguistikoaren zentroan dago euskara: gauza normal-normala da, *per se*, bertan euskaraz egitea. Kalitatiboki ezinbestekoak dira horregatik. Gizarte-ezaugarrien bilakaera ikusita (mugikortasuna, etab.) eta euskaldun gehienak gune erdaldunenetan bizi direla kontuan hartuz, euskaraz egiteko aukera berriak sortu behar dira gune horietan. Gune soziolinguistiko erdaldunenetan erdaraz egitea denez normala, “normala” ez dena egin dezakeela jakin behar du euskaldunak: zenbait komertziotan “hemen ere euskaraz”, “bankuan ere euskaraz” “nirekin euskaraz” bezalako kartelak jartzeak segurtasuna ematen dio hiztunari, eta normaltasuna euskararen erabilerari. Maila pribatuan txantxangorriaren pina erabiltzea ere pista bat izan daiteke, erabilera normaltzeko bidean. Arnasguneen garrantzia maila kualitatiboari dagokion bezala, gune erdaldunen garrantzia maila kuantitatiboan dagoela azpimarratu behar da. Egia da garai bateko banaketa soziofuntzionalik gaur egun ez dagoela, M. Zalbidek aipatzen duen moduan, baina garai bateko egoera diglosikoak suposatzen zuen banaketa soziofuntzionala ez litzateke bideragarria izango gaurko gizartean. Arnasgunerik gabe jai badu euskarak, eremu formaletan sartu gabe ere jai edukiko luke euskarak seguruenik. Hori bai, etorkizuneko formulazio iraunkorrak sortzeke daude oraindik, eta sortu egin behar dira.

4. BUKAERAKO OHARRAK

I Bukatzeko, iruzkin bat egin nahi genuke: arnasguneen eta gune erdaldunen euskararen erabileraren atzean errealitate soziolinguistiko jakina ageri da. Euskal Herrian eta euskarari dagokionez, bi indar soziolinguistiko nagusi daude: alde batetik belaunez belaun guregana iritsitako (oinordez etorritako) euskararen indarra, eta bestetik berregindako (berriz osatutako) euskararena. Terminologia hori Lafont okzitaniarrari mailegatua dugu: okzitanoaren kasuan *occitan hérité* eta *occitan reconstitué* aipatzen ditu berak (Lafont, 1997: 97-98). Kasu batean historiaren eta historia soziolinguistikoaren jarraipen-indarra dugu oinarri, eta bestean plangintzaren eragina. Bistan denez, historiaren iner-

Euskal Herrian eta euskarari dagokionez, bi indar soziolinguistiko nagusi daude: alde batetik belaunez belaun guregana iritsitako (oinordez etorritako) euskararen indarra, eta bestetik berregindako (berriz osatutako) euskararena.

**Euskararen
gaitasunak edo
erabilerak Euskal
Herrian gora
egiteak oso
adiera diferentea
du, bilakaera
hori
oinordetutako
euskarari esker
edota
berregindako
euskarari esker
lortu baldin
bada.**

tzia aurreko politika eta plangintza soziolinguistiko batzuen ondorioa ere izan liteke.

Oso indar diferenteak dira biak, esanahi soziolinguistiko desberdinak dituzte eta emaitza demolinguistikoak irakurtzean ez dira nahastu behar. Oinordez etorritako euskara belaunaldiz belaunaldi transmititzen da: nabarmen da hori, inon baino areago agian, arnasmuneetan. Berregindako hizkuntza, aldiz, familia-esparruan euskararen transmisioan eten ondoan plangintzaren ondorioz belaunaldi gazteenek berriz eskuratu eta “haien hizkuntza” bihurtzen dutenean (Lafont-en terminologian). Orduan edota, immigranteen kasuan zein historikoki erdaldun izan diren familietan hitzuneak euskara ikasi dutenean, besterik gabe. Ereku geografiko jakinakin identifikatu izan ohi dira bi fenomeno horiek Euskal Herrian.

Une historikoaren arabera bi indarrak norabide berekoak izan dira edota batak bestearen kontra egin izan du. Garai historiko jakinetan euskararen kontra joan izan da plangintza, eta inertzia euskararen alde. Beste une historiko batzuetan, aldiz, horren alderantziz: oinordetutako euskararen bilakaera ezkorra izan da eta plangintza, aldiz, euskararen aldekoa. Indar biak kontra izan ditu euskarak, askotan. Bi fenomemo horiek kontuan hartuz, eta denborazko zein geografiazko aldagaiak gogoan izanik, argi dago alde batetik Lastur edo Ea ez direla Tutera edo Portugalete, ez orain eta ez une historiko zaharragoetan, eta bestetik 1940ko hizkuntza-politika ez zela 1985ean zegoena edota gaur egun dagoena.

Hizkuntzaren osasuna eta bere erabilera neurtzeko garaian bi indar horien datuak nahastea ondorio okerrak ateratzeko bide izan liteke. Euskararen gaitasunak edo erabilerak Euskal Herrian gora egiteak oso adiera diferentea du, bilakaera hori oinordetutako euskarari esker edota berregindako euskarari esker lortu baldin bada. Euskararen etorkizuna argiagoa eta baikorragoa da bere ereku geografiko eta soziofuntzionaletan euskara transmititzen, ikasten eta erabiltzen denean, alegia ereku horietan indartzen denean. Portugaleteko gazte batek eskolan euskara (pixka bat) ikasten duenean euskararen egoera baikorragoa da ere bai, baina ez du neurri bereko garrantzirik. Aipatutako bi kasuak baikorrek dira baina beste kasu batzuetan, aldiz, indar batek itzali, ezkutatu egiten du bestea eta horretan datza ondorio okerrak ateratzeko arriskua. Adibidez, Barakaldoko, Portugaleteko eta Sestaoko 30.000 gaztek, (ia) inoiz erabiliko ez duten euskara pixka ikasten duten bitartean Ean, Lekeitio, Ondarroan eta Markinan bost mila gaztek euskara galtzen badute (edota ohiko bidetik transmititzen ez bazaie) kuantitatiboki oso egoera baikorra baten deskribapena edukiko

genuke: 25 000 pertsona irabazita egongo litzateke euskara. Hala ere, egoera soziolinguistikoaren azterketa objektiboago bat eginez konturatuko ginateke eremu euskaldun batean euskararen gainbehera modu horretan gertatzea oso larria dela. Oso larria da euskarak bere eremu geografiko eta soziofuntzionaletan atzera egitea, nahiz eta bereak ez diren eremuetan irabaziak eduki, normalean irabazi horiek ez baitute ondorio praktikoko-operatibo baikor nahikorik galdutakoa estaltzeko. Horrek ez du esan nahi, noski, bere gotorlekuetatik kanpora euskara zabaldu behar ez denik. Alderantziz baizik, euskararen erabilera sustatzeko bi euskarak, oinordez etorritakoa eta berregindakoa, indartu behar dira. Bere eremu tradizional-historikoetatik at bilakaera positiboa lortu izan ez balu euskarak, bere bere dituen eremuetan are atzerapen handiagoa ezagutuko zukeen. Gure ustez, aurrerapen ohargarriak egin direlako arnasmuneetatik at (oinordetutako euskararen eremuetatik at) arnasmuneen bilakaera positiboa (edo ez hain txarra) izan da. Elkarri loturik daude biak, gaur egun: nekez egingo da aurrera bietako bat atzean gelditzen bada.

Hori guztia esanda, arnasmuneek historikoki izan dituzten ezaugarriak ikusita batetik, eta ezaugarri horiek gizarte berrian jasaten ari diren inpaktua ikusita bestetik, egindako lana eta arnasmuneen mantentzea (gainbehera apalaz bada ere) oso positibotzat jotzen dugu. Hori bai, kontziente izan behar dugu arnasmune horiek sekula izan ez duten arriskua dutela egungo egunean, eta etorkizunari begira orain arteko formulek ez dutela balio izango, neurri on batean behintzat. Moldaerabide berriak egokitu edo sortu beharko dira. Arnasmuneak egoki zaintzeko beste gune geografikoetan dauden euskaldunei (eta euskaldun ez direnei ere) erabiltzeko aukera berriak sortu beharko zaizkie. Arnasmuneetatik kanpora bizi dira euskaldun gehienak eta arnasmuneetan bizi den jendea hortik kanpora ateratzen da gero eta jarduera gehiagotarako. Gune horietatik at, beraz, babeslekuak topatu behar dituzte biztanle horiek eta, bide batez, arnasmuneetako pertsonen presentziak babesleku edo gotorleku horiei indarra eta trinkotasuna emango die. Arnasmunetik kanpokoa beharrezkoa dute arnasmuneek maila kuantitatiboan; modu berean, jatortasun mailan, gune ez hain euskaldunek behar beharrezkoak dituzte arnasmuneak. Sinergia bat lortu behar da.

Txostenaren bukaeran M. Zalbidetik aipatzen duen *Ahuldutako hizkuntza indarberritzeko gogoeta-etxea*-ren ekarpena handia litzateke formulazio berriak aztertzea eta sortzea. Horrelako ekarpen-etxea sortzea ezinbestekoa dirudi etorkizuneko erronkei aurre egin nahi bazaie, gogoeta sakona eta jarraitua eskatzen baitu gizarte berriak. ●

Arnasmunetik kanpokoa beharrezkoa dute arnasmuneek maila kuantitatiboan; modu berean, jatortasun mailan, gune ez hain euskaldunek behar beharrezkoak dituzte arnasmuneak. Sinergia bat lortu behar da.

OHARRAK

1. Interesgarria izango zen txostenean erabiltzen ez diren beste iturri batzuk, kualitatiboagoak, orobat erabiltzea. Bistan denez, mota honetako lan bat egiteak denbora luzea eta orri-hedadura handia eskatzen du. Azken 30 urteotako hizkuntza-erabileren bilakaera exhaustibo eta osoa 70 bat orrialdetan aurkeztea ezinezkoa da. Ikerketa exhaustiboa egiteak Zalbidek bukaeran eskatzen duen *gogoeta-etxea* bezalako zerbait sortzea eskatuko luke.
2. Ondoko galderak ere gehitu izan zaizkio: “where and with what aim?”.
3. “Segun nola begiratzen zaien” diogu, 2. puntuan “gaitasuna” aipatzen baitu autoreak, ez guk hemen aipatzen dugun “gaitasun-erlatiboa” edo “hitza egiteko erraztasun erlatiboa”. Bi gauza diferente dira, berez, bata eta bestea.
4. Alderantziz ere bai: zenbat eta hiztunak euskaraz gehiago egin, orduan eta erraztasun handiagoa du hitz egiteko. Horrexegatik, lehen-hizkuntza edo ama-hizkuntza euskara dutenek gaitasun erlatibo handiagoa dute eta maizago egiten dute euskaraz. Hortik dator M. Zalbidek artikulua bukaeran proposatzen duen paradigma berria: “eginez ikasi” (58. or).
5. Askotan aipatu izan dugunez, elkarriketa bat egin eta handik bost minutura elkarriketa hori zein hizkuntzatan egin den galdetzen bazaio elkarriketatuari, askotan ez da jasotzen errealtatearekin lotutako erantzuna (hots: oroimenaren arabera erantzuna) bere ohiturekin edo aurreiritziekin lotutakoa baizik. Honelako zerbait, adibidez: “Nola egin dudan aitarekin lehen?... ba ez dakit... euskaraz... aitarekin euskaraz egiten dut beti”. Frogatu izan denez, plangintzak zehaztean errealtate objektiboak interes handia badu ere, gizarteak errealtate hori nola bereganatzen duen, alegia zein iritzi eta nola baloratzen duen, garrantzi handikoa da orobat. Zenbait adituren ustean, errealtate objektiboa bera baino garrantzi handiagokoa.
6. Errealtatearen azterketaren berezko konplexutasunaz ikus Zalbide, Joly, Gardner 2015: 258-263.
7. 1991ko 16-24 urte artekoek, adibidez, neurri handi batean 2001eko 25-34ko adin-taldea osatzen dute eta ondoren, 2011n, 35-49koen adin-taldea.
8. Demografiaren bilakaerak ere kontuan hartu behar dira noski: emigrazioak eta immigrazioak.
9. Jakin-eko artikulua horretan “arnasgune”-a modu zabalago batean interpretatu genuen. Hemen M. Zalbidek egiten duen deskribapena zehatzagoa da.

BIBLIOGRAFIA

- Askoren artean, 2013, *V. inkesta soziolinguistikoa*. Gasteiz: EJAZN.
- Askoren artean -2-, 2013, *Ikasleak hiztun. 2011ko Arrue proiektua*. Gasteiz: EJAZN.
- BAT aldizkaria, 2011, ale berezia, *Diglosiaren inguruan*, 79-80.
- BAT aldizkaria, 2012, ale berezia, *Hizkuntzen kale-erabileraren VI. neurketa*, 84.
- Bourdieu, P., 1977, “L'économie des échanges linguistiques” in *Langue française*, 34-1, 17-34.
- Bourdieu, P., 1982, *Ce que parler veut dire. L'économie des échanges linguistiques*, Paris: Fayard.
- Calvet, L.J., 1987, *La guerre des langues et les politiques linguistiques*. Paris: Hachette.
- Eusko Jaurlaritz, 2014, *V. mapa soziolinguistikoa*. Gasteiz: EJAZN.
- Fishman, J. A., 1965, “Who Speaks What Language to Whom and When?” in *La Linguistique*, 1 libk., fasc. 2, 67-88.

- FISHMAN, J. A. (ED.), 1968, *READINGS IN THE SOCIOLOGY OF LANGUAGE*. THE HAGUE: MOUTON PUBLISHERS.
- GILES, H.; BOURHIS, R.Y.; TAYLOR, D.M., 1977, “Towards a theory of language in ethnic group relations” in Giles, 1977: 307-348.
- GILES, H., 1977, *Language Ethnicity and Intergroup relations*. London: Academic Press.
- Gros i Lladós, M., 2009, *El euskera en la Comunidad Autónoma Vasca (2009)*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Hymes, D., 1968, “The ethnography of speaking” in Fishman (ed.) 1968: 99-138.
- Joly, L., 2004, *Etude sociolinguistique du Pays Basque*. Zuz.: M. Ezquerro. Université Paris IV- Sorbonne. Argitaratu gabeko doktorego-tesia.
- Joly, L., 2012, «Soziolinguistika. Demolinguistika» in *Jakin*, 189, 106-113.
- LAFONT, R., 1997, *Quarante ans de sociolinguistique à la périphérie*. Paris: L’Harmattan.
- Martinez de Luna, I., 2012, “Egoeraren gaineko gogoetak eta norabide proposamenak” in *BAT* 84, 121-137. or.
- Prospekzio Soziologikoen Kabinetea – Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritza, 2011, *Euskara: erabilera, jarrerak, politika*. <http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.eus>
- Txepetx [Sanchez Carrion, J. M.], 1991 [1987], *Un futuro para nuestro pasado*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Zalbide, M.; Joly, L.; Gardner, N., 2015, *Euskararen Historia Soziala lantzeko eredu metodologikoa*. Bilbo: Euskaltzaindia.